

BALIO PROPOSAMENA

Gehienetan, honelako produktu bat kontsumitu nahi duzunean (hau da, yogur izoztua toppingekin), ezin duzu nahi duzun konbinazioa edo kantitatea aukeratu. Gure dendan bezero bakoitzak nahi duena har dezake, nahiago duenaren arabera. Yogurt asko eta topping gutxi, yogurt gutxi eta topping asko edo yogurt asko eta topping asko ere bai. Honen alde ona da, zuk aukeratu dezakezula guztia eta inork ez dizula yogurt-a prestatuko.

Balio kuantitatiboan, prezioan hain zuzen ere, gure produktua lehiakideenarengandik ezberdina izango da, zeren eta prezioa hartutakoaren arabera baita. Beraz, gose handirik ez baduzu, oso merke aterako zaizu produktua. Kasu honetan, lehiakideena baino askoz merkeagoa izango da. Gose handiagoa izanez gero, ordea, prezioa proportzionala izango da.

Azkenaldian, gure gizartea janari osasuntsua jateaz kontzientzatu da, hau da, forma fisikoa mantentzea garrantzitsu bihurtu da. Guk gure bezero osasuntsuentzat atal bat jarriko dugu, topping berezi eta "light"-ak eskaintzen dituenak. Topping berezi hauen adibideak, denboraldiko fruta, muesli, azukre gehigarri gabeko osagaiak...

